

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak Nafarroako Jauregian esku hartzeko plan baten aurrerapena aurkeztu du, 2016. urtean 1,25 milioiko inbertsioa aurreikusten duena

Iruñeko Udaleko ordezkariak batek hainbat eraikin bisitatu ditu, eta egingo diren lanei buruzko informazioa jaso du

Lunes, 16 de noviembre de 2015

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Jauregian egingo den esku hartze-planaren aurrerapena aurkeztu du gaur goizean, prentsaurrekoan. Haren bidez, erabilerak legezlatu eta arrazionalizatu nahi dira, mantentze-lana bermatu eta eraikinek duten [narriatze-egoera](#)rekin amaitu, zenbait kasutan oso larria dena.




Artxibo zaharreko lokal baten barnealdea.

Prentsaurrekoa eskaini da Iruñeko Udalaren ordezkariak batek egindako bisitaren ondoren; ordezkariak horri Gobernuak egingo dituen jarduketan berri eman dio: mantentze-lanak, Nafarroako Jauregiko barrutiko eraikinak berriitu eta egokitzea eta, lan horietarako, Aurrekontu Orokorren aurreproiektuan 1.250.000 euro esleitu dira; diru-kopuru horren zati handi bat Nafarroako Artxibo zaharra birgaitzeko erabiliko da, narriatze-egoera handiena duen eraikina baita.

Bi ordezkariak, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari María José Beaumont eta Hiri Bizigarri eta Etxebizitza Arloko zinegotzi Jose Abaurrea buru zutela, bertako hainbat lokal bisitatu dituzte, eta Nafarroako Gobernuak jadanik hartutako ekimenak nahiz etorkizunean egingo direnak aztertu dituzte.

Nafarroako Gobernuak, urriaren 14an egindako bilkuran, erabaki bat hartu zuen eta, haren arabera, Nafarroako Jauregiaren eta haren ingurunearen erabilerak legezlatzeko espedientea hasteko agintzen zen, bai eta araudi-antolamendu, erabilera nahiz mantentze-lanen Plan Gidari bat idaztea ere. Erabaki hori Nafarroako Jauregiak oro har duen



Artxibo zaharreko bigarren solairuko gela.

narriatze-egoera ikusi ondoren hartu zen, zenbait txosten teknikok agerian utzitakoa. Erabakiaren barnean sartzen zen ere, Iruñeko Udalaren aurrean Nafarroako Jauregiaren eta haren ingurunearen erabilerak nahiz jarduerak legeztatze kudeaketak hastea.

Gaur egindako bilkura 2015eko urriaren 13an Iruñeko Udaleko Hirigintza eta Etxebizitza Zuzendaritzan egindakoaren jarraipena izan da, Nafarroako Gobernuak hala eskatuta, egoeraren berri emateko eta hari nola aurre egin aztertze. Bilkura horretan, beste bat egitea adostu zen, premiazko obren legeztatze nahiz egikaritzea jorratzeko 2016. urterako aurrekontuan zenbateko zuzkidura ekonomikoa izango zen jakin ondoren; aldi berean, bisita baliatuko zen Iruñeko arduradun politiko eta teknikoek egoera bertatik bertara ikus zezaten, horri buruzko azalpen egokiak jasotzeaz gain.

Premiazko obrak Nafarroako Artxibo zaharrea eta estalkietan

2016rako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuko zirriborroan 1.250.000 euro esleitu da jadanik datorren urtean egikaritzeko diren obretarako; 750.000 euro autobabeserako planerako erabiliko dira, eta beste 500.000, Nafarroako Artxibo zaharreko eraikinean premiazko obrak egikaritzeko; obra horien barnean, estalkietan jarduketak egingo dira, eta bulegoetarako espazioak prestatuko, bulegoak, bilkura-aretoa, biltegia... Horren guztiaren berri eman zaie hiriko udal ordezkari.

Gainera, bilkuran udal eskaera aztertu da, hau da, Ingurumena Babesteko Esku Hartzeko Foru Legea garatzeko Araudiarekin bat etorriz, Nafarroako Gobernuak sailkatutako jarduera-lizentzia lortu behar duela eta, harekin batera, egikaritu nahi diren obra guztiak jasoko dituen proiektu teknikoa aurkeztu beharko duela.

Alde horretatik, Lehendakaritzako Departamentuak jakinarazi duenez, kontratatu dira jadanik Nafarroako Jauregiaren dokumentazio teknikoaren proiektu bategina egitea eta idaztea, bai eta Sailkatutako Jardueraren proiektuarena ere, aipatutako lizentzia izapidetzen utziko duena; hura guztia 2015eko aurtengo urtea amaitu baino lehen amaituta izatea aurreikusten da. Gainera, kontratatu dira ere: jauregiko estalkietan ez erortzeko sistema hornitzeko eta jartzeko beharrezko lanak, Larrialdi Plana ezartzea eta ebakuazio-simulakroa egitea.